

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2015/2016 ikasturtea

IKAS KOMUNITATEA HAUR HEZKUNTZAN: KONPETENTZIEN GARAPENA TALENTUZ PROIEKTUAN

Egilea: Saray Joaquin Outeiral

Zuzendaria: Arantzazu Lopez de la Serna

Leioan, 2015eko maiatzaren 28an

© 2016, Saray Joaquin Outeiral

AURKIBIDEA

SARRERA.....	4
1. MARKO TEORIKOA ETA KONTZEPTUALA.....	5
1.1. Ikas Komunitateak.....	5
1.1.1. Lekeitioko Eskola Publikoa: Ikas Komunitatea.....	6
1.2. Talentuz Proiektuaren Sorkuntza.....	6
1.3. Talentuz Proiektua.....	8
1.3.1. Talentuz Proiektua eta Konpetentzien garapena.....	9
1.3.2. Ikasketa Guneak Talentuz Proiektuan.....	10
1.3.3. Hezkuntza esku-hartzea Talentuz Ikasguneetan.....	12
1.3.4. Aniztasunaren trataera Talentuz Proiektuan.....	13
1.3.5. Baliabide materialak Talentuz Guneetan.....	13
1.3.6. Familiekin elkarlanean Talentuz Guneetan.....	13
1.3.7. Irakasleen arteko talde lana Talentuz Guneetan.....	14
2. HELBURUAK.....	14
3. METODOLOGIA.....	15
4. AUKERATUTAKO LAGINA.....	16
5. IKERKETARAKO ERABILITAKO TRESNAK.....	17
6. ATERATAKO EMAITZAK.....	18
7. ONDORIOAK.....	22
8. IKERKUNTZARAKO ZAILTASUNAK.....	24
9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	25

ERANSKINAK

1. Eranskina: Ikas Komunitatearen Helburuak
2. Eranskina: Galdetegia
3. Eranskina: Ebaluazio orria
4. Eranskina: Ebaluazioen emaitzak itemka
5. Eranskina: Ebaluazio emaitzen bataz-bestekoa eremuka
6. Eranskina: Ebaluazio emaitzen bataz-bestekoa atalka
7. Eranskina: Talentuz Proiektuan parte hartzen duten irakasleen erantzunak
8. Eranskina: Talentuz Proiektuan parte hartzen duten gurasoen erantzunak

IKAS KOMUNITATEA HAUR HEZKUNTZAN: KONPETENTZIEN GARAPENA TALENTUZ PROIEKTUAN

Saray Joaquin Outeiral

UPV/EHU

Ikerketa lan honen helburu nagusia Lekeitioko Eskola Publikoan martxan jarri berria den Talentuz Proiektuaren bitartez, umeen konpetentzien garapena aztertzea izan da. Proiektu honetan, bat egiten dute Ikas Komunitatearen ardatz nagusiek eta Haur Hezkuntzak dituen berariazko ezaugarriek. Horrela, praktika erreala eta oinarri teorikoen azterketa sakon baten bitartez Haur Hezkuntzarako beharrezkoak diren ezagutzak, balioak eta sentipenak garatzen direla egiaztatu ahal izan da, proiektuaren egokitasuna azpimarratuz.

Haur Hezkuntza, "Talentuz" Proiektua, Ikas Komunitateak, Konpetentziak, Gaitasunak

El principal objetivo de este trabajo de investigación ha sido analizar el desarrollo de las competencias de los niños/as de Educación Infantil a través del Proyecto Talentuz, recientemente puesto en marcha en la Escuela Pública de Lekeitio. Este proyecto, une las ideas principales de las Comunidades de Aprendizaje con las ideas básicas de la Educación Infantil. A través de un análisis práctico y teórico se muestra cómo se desarrollan de forma favorable los conocimientos, valores y sentimientos necesarios en los niños/as de Educación Infantil mediante la utilización del proyecto "Talentuz".

Educación Infantil, Proyecto "Talentuz", Comunidades de Aprendizaje, Competencias, Capacidades

The main objective of this research work has been to analyze the development of the skills of children in Infant Education through the project Talentuz, recently launched in the Public School of Lekeitio. This project, joins the main ideas of the Learning Communities with the basic ideas of Infant Education. Through a practical and theoretical analysis it shows how favorably they develop the knowledge, values and necessary feelings in Infant Education through the use of the project "Talentuz".

Infant Education, "Talentuz" Project, Learning Communities, Competences, Capabilities

SARRERA

Haur Hezkuntzaren xedea, umeen kompetentzien garapena modurik eraginkor eta esanguratsuenan bideratzea da. Hau horrela izanik, kompetentzien garapena nire lanaren oinarri eta abiapuntutzat hartzea erabaki dut.

Hezkuntza Sailak atera berri duen *Heziberri 2020. Hezkuntza eredu pedagogikoaren markoa* eta hori garatzeko aurkeztu duen *Oinarrizko Hezkuntzaren Curriculum* a zehaztu eta *EAE n ezartzen den Dekretua* dokumentuan azaltzen den moduan, kompetentzia mota bi desberdintzen dira: Oinarrizko Zeharkakoak eta Diziplina barruko Oinarrizkoak.

Hori kontuan izanik, Lekeitioko Eskola Publikoan sortu berria den Talentuz Proiektuaren bitartez kompetentzion garapena aztertzea da nire helburua. Proiektu honetan, bat egiten dute Ikas Komunitatearen ardatz nagusiek eta Haur Hezkuntzak dituen berriazko ezaugarriek, horrela, ikasleen ahalmen eta talentuetan oinarrituz, gizartean beharrezkoak diren ezagutzak, balioak eta sentipenak garatzen dira.

Garapen hori lortzeko, ezinbestekoa da besteekiko begirunezko harremanak izatea, *Harremanen Pedagogiak* esaten duen bezala. Honen oinarrien artean; ikaslea protagonista izatea, afektibitatea lantzea, hizkuntza eta elkarrekintza batera joatea... aurki ditzakegu.

Bestalde, Talentuz Ikasguneek proiektuan duten garrantzia ere azpimarratuko da. Gune hauek, estimuluz beteriko esparruak dira non ikasle bakoitzak bere sormena, komunikazioa, afektuak, harremanak, sozializazioa eta abarrak bultzatu eta garatzen dituen. Aipatutako ikas guneak; Talentu Pertsonala eta Soziala, Talentu Komunikatiboa, Talentu Matematikoa eta Zientifikoa, Talentu Artistikoa, Talentu Korporala, Talentu Naturalista Ekologikoa eta Talentu Digitala dira.

Guneok zehazterakoan hiru iturri nagusi izan dira kontuan: *Europar Batasunak eta Delors txostenak* aurkeztutako oinarrizko kompetentziak, *Howard Gardnerrek egindako Adimen Anitzen proposamena* eta Hezkuntza Sailak aurkeztu berria duen *Heziberri 2020 dekretua*.

Ikerketa lan honen xede nagusia beraz, proiektu honen praktika errealaren eta oinarri teorikoen azterketa sakonaren bidez Talentuz Proiektuan ezartzen diren ikas guneetan umeen kompetentzien garapena nola eta zein neurritan ematen den aztertzea da.

1. MARKO TEORIKOA ETA KONTZEPTUALA

1.1. Ikas Komunitateak

Ikas Komunitatea gaur egungo informazioaren gizarteak hezkuntzari dakarzkion eskakizun eta betebeharrei erantzun egokia eskaintzen dion Hezkuntza Proiektu Integrala da. Ikas Komunitateak ikasle guzti-guztien berdintasuna eta ikasketa-integrazio erreala bultzatzen du; sexu, etnia eta kultura desberdinen arteko elkar ulertzea eta elkarbizitza ziurtatzeko beharrezkoak diren eraldaketak eraginez. Bikaintasunerako ibilbide honetan, ohiko arlo instrumentaletan (matematika eta hizkuntzak) kalitate goreneko ikasketak ziurtatzeaz gain, teknologia berrien erabilera eta afektu eta sentimenduen heziketa bultzatzen du irakaskuntzako alor guztietan (Elboj, Puigdelívol, Soler eta Valls, 2003).

Ikas Komunitateetan erabiltzen den oinarri metodologikoa “Ikaskuntza Dialogikoa” da. Ikaskuntza Dialogikoak ikaskuntza esanguratsuaren elementu positiboak bildu eta gainditzen ditu. Izan ere, ikuspegi orokor eta sozialago batetik planteatzen du ikaskuntza, elkarrizketaren bidez partaide guztiak aldi berean ikastun bihurtuz (Flecha, Padrós eta Puigdelívol, 2003).

Gizarte eta kultur ikuspegi honek, ikaskuntza prozesua nola garatzen den jakiteko gakoa ematen du, aipatutako irakaskuntza prozesua, gizarte jatorriko prozesutzat ulertuz. Ikaskuntza mota honetan, ezinbestekoa da besteen (profesionalak/boluntarioak) laguntza eta gidaritzza, ikasleek elkarrekintzaren esparruan dauden jakintzak beregana ditzaten. Jaussi eta Garre jarraituz, proiektu honekin lortu nahi diren helburuen artean ondoko hauek azpimarra ditzakegu (Jaussi eta Garre 2002):

- Ikasleen arteko desberdintasunak gainditzea.
- Kalitatezko hezkuntza guztiontzat izatea.
- Ikasketak garatzeko elkarrizketaren garrantzia azpimarratzea.
- Eskola testuingurua zabaltzea.
- Hezkuntza sistemak dualizaziorako duen joera gainditzea.
- Ikas komunitatea osatzen duten eragile guztien parte-hartzea.
- Eskolako helburu nagusiak eragile guztien artean partekatzea (ikasle, senide, irakasle eta bestelako langile).
- Aprestuzia lehentasuna izatea.
- Ikasleen gizarteratze prozesua bideratzea.

(Aipatutako helburu hauek sakontasunez ikusi nahi izanez gero, joan 1. Eranskinera.)

1.1.1. Lekeitioko Eskola Publikoa: Ikas Komunitatea

Lekeitioko Eskola Publikoa 2000. urtean hasi zen Ikas Komunitateen proiektuarekin. Eta Lehen Hezkuntzan esperientzia handia eta ibilbide luzea izan ondoren, Haur Hezkuntzan proiektuaren isla ahulagoa zela sumatuz, adin tarte honetarako proiektuaren egokitzapena egin zuten Talentuz proiektuaren bidez (Talentuz Proiektua, 2014).

Haur Hezkuntzako Talentuz Proiektua Nazioartean emaitza hoberenak lortzen ari diren esperientzietan oinarritzen da; Ikas Komunitateen oinarri diren Estatu Batuetako Success For All Foundation, Accelerated Schools edota Development Schools bezalakoetan eta Haur Hezkuntzarako bereziki garatutako esperientzietan, hala nola Italiako Reggio Emiliako eta Finlandiako haur eskoletan edota Howard Gardnerren adimen anitzetan oinarri duten bezalakoetan. Adituen esanetan, bikaintasuna lortu nahi duten haur eskolek gizartean beharrezkotzat jotzen diren ezagutza, balio eta sentipenak indartu behar dituzte eta horregatik guztiagatik, Talentuz Proiektuan bat egingo dute Ikas Komunitateko jarduera arrakastatsuek eta Haur Hezkuntzak dituen berezko ezaugarriek (Lekeitioko Eskola Publikoko Buletina, 2015:110). Proiektu hau martxan jartzeko, ohiko gelen egitura eta arkitektura birmoldatu egin dira, maila bakoitzeko hiru gela izatetik gela ireki eta handi bat izatera pasatuz. Horrela 160 metro karratuko geletan baliabide gehiago izateaz gain, adin bereko ikasleek elkarrekin partekatzen dituzte Talentuz Ikasguneetako jarduerak irakasle eta boluntarioen gidaripean (Lekeitioko Eskola Publikoko Buletina, 2015:110).

1.2. Talentuz Proiektuaren sorkuntza

Proiektu hau sortzeko ideia, autore ezberdinen teorietan zein proiektu arrakastatsu ezberdinen praktika errealetan oinarritu da. Horien artean, Loris Malaguzziren *Reggio Emilia* edota Howard Gardner autoreetan. Baina horiez gain, inguruko proiektu arrakastatsuen praktika errealen ideiak ere barne hartu ditu, Antzuolako Herri Ikastetxearen Zirkulazio Librearenak esaterako.

Malaguzzi-ren aburuz, eredu eta programa zehaztuak saihestu eta zuzeneko ekintzei eta komunikazioari eman behar zaie garrantzia, horrek garatzen duelako haurren gaitasunen garapena. Gainera, ikaskuntzaren jarraikortasun eza defendatzen du, ikaskuntza

planifikatu gabeko haurren edozein ekintzatan gertatzen dela aldarrikatuz (Hoyuelos eta Cabanellas, 2005). Ildo beretik, Gardner-ek ere gaitasunak eguneroko bizitzako edozein ekintzetan garatzen direla dio eta ez soilik horiek burutzerara prestatuturiko eremuetan. “La habilidad se desarrolla no tan sólo en áreas de vocación y distracción sino también en las sencillas actividades de la vida” (Gardner, 2002:115). Bata zein bestea ados daude zuzeneko ekintzei eta mundua esploratzeko joerari aitortutako garrantziaz. “Los niños adquieren una gran cantidad de conocimiento a través de la exploración regular y activa del mundo” (Gardner, 2002:94).

Izan ere, umearen gaitasun adimen, talentu edo konpetentziak garatzeko ezinbestekoa da haurrari espazio atsegina eta desiragarria eskaintzea, horretarako Gardnerrek espazio estimulagarriak, erosoak eta material egokiez beterikoak proposatzen ditu.

En lugar de diseñar otra batería de pruebas, creamos un entorno muy estimulante al que llamamos *Aula Spectrum* en el que los niños se pudieran sentir cómodos. Nuestra primera aula de este tipo, situada en un centro de preescolar, estaba dotada de abundantes materiales para activar las distintas inteligencias, incluyendo muestras naturales, materiales artísticos y musicales, y áreas para el ejercicio, el baile y la construcción. Suponíamos que los niños encontrarían estos materiales atractivos e interaccionarían frecuentemente con ellos, y esperábamos que la riqueza y la complejidad de sus interacciones nos revelaran su gama particular de inteligencias. De ahí la palabra *Spectrum* (*espectro o gama*) (Gardner, 2010:144).

Kontuan izanik haur bakoitzak modu batean edo bestean erantzuten duela estimulu berrien aurrean, Gardnerrek jarduera ezberdinak sortu zituen.

Para los casos en que algún niño evitaba ciertos materiales, ideamos unas actividades llamadas *de transición*. Por ejemplo, si un niño no quería narrar un relato sobre una imagen, le animábamos a construir un diorama sobre el mismo tema y después empleábamos el diorama como puente o medio de transición pidiéndole que nos dijera qué pasaba con las personas o animales que había en él (Gardner, 2010:145)

Ebaluazioa egiteko, Gardner arestian azaldutako Aula Spectrum-ean oinarritu zen, ohiko ebaluazio motak saihestuz. Horretarako, gela horretan askatasunez jarduteko aukera zuten haurren jokabideak aztertu zituen. “Para la mayoría de los niños dejar que exploren sin trabas en un aula Spectrum basta para obtener una imagen muy aproximada de sus inteligencias en un momento dado de su vida: no hace falta nada más” (Gardner, 2010:145). Azken batean, espazio aberats hauek haurrei egoera ezberdinen aurrean jarduteko aukerak emango dizkie, eta modu honetan garatuko dituzte umeei adimen anitzak. “Empleamos una inteligencia cuando, de una manera activa resolvemos un problema o creamos un producto valorado por la sociedad” (Gardner, 2010: 149).

Horrez gain, kontuan izan behar dugu haurrak ezberdinak direla, eta beraz, gaitasun ezberdinak dituztela. Hau horrela izanik, Gardnerrek hurren ezberdintasunak kontuan hartzen dituen bakarkako hezkuntza proposatzen du. “*La educación configurada individualmente*, es decir, una educación que tome en serio las diferencias individuales y, en la medida de lo posible, desarrolle prácticas que sirvan por igual a distintos tipos de mentalidades” (Gardner, 2010:156).

Bestalde, Antzuolako Herri Ikastetxearen Zirkulazio Librean, ikaslea modu globalean ulertzen da, jardueraren abiapuntuan bera jarritz. Hori aurrera eramateko, irakasleak bideak eskaini behar ditu ikasleak bere behar eta desioak adierazi eta ase ditzen. Horretarako, inguruneak baliabideak eskaini behar dizkie hurrei, bizi duten errealitatea aztertu eta ulertzeko, eta bide horretatik, pentsaera bultzatzeko (Hik Hasi, 2003: 10. Monografikoa). Arestian aipatutako Talentuz proiektua beraz, Ikas Komunitateetan oinarritzeaz gain, Malaguzzik eta Gardnerrek proposatutako ideien, Antzuolako Zirkulazio Librearen eta HEZIBERRI 2020 egitasmoan finkatzen diren egitasmoen isla da. Izan ere, hezkuntzako etapa horretako alderdirik nabarmenetariko bat adin horretan haurrak modu globalizatu batean jarduten dutela da. Modu global batean adierazten dituzte gauzak, izaten dituzte harremanak edota ikasten dute. Beraz, gizabanakoak ezagutu nahi duen errealitatera hurbiltzeko prozesua globala da, eta prozesuak emaitza onak izango ditu aukera ematen badu ezartzen diren harremanak eta eratzen diren esanahiak zabalak eta dibertsifikatuak direnean. Gainera, hurrek erritmo, interes eta behar desberdinak dituztenez, kontuan hartu behar dira; bai ikasgelako espazioaren eta denboraren antolakuntza planifikatzeko, bai eta eskolako jardueraren plangintza egiteko ere (Talentuz Proiektua, 2014).

1.3. Talentuz Proiektua

Haur Hezkuntzan kokatzen den Talentuz Proiektuak ildo zehatza zabaldu nahi du eskolako proiektu nagusia den Ikas Komunitatearen magalean. Horregatik, Ikas Komunitateen ardatz nagusiak eta Haur Eskolak dituen berezko ezaugarriek bat egingo dute Talentuz Proiektuaren oinarrian, ikasketa goiztiarrak eta talentuak garatzerako orduan ikaslearen nagusitasuna eta eskola komunitatearen esku-hartzea azpimarratuz (Talentuz Proiektua, 2014).

Hartara, ondokoak izango dira “Talentuz” sustatuko duten oinarriak:

- Afektuak, berba egitea eta elkarrekintza ikasketaren oinarri bilakatzea.
- Jardueren garrantziaz ohartzea.
- Gaitasun eta konpetentziak haurtzarotik garatzea.
- Adimen anitzak bultzatzea.
- Elkarbizitza, hezkidetzeta eta indarkeriari aurre hartzea.
- Eskola Komunitatearen parte hartzea: senide eta boluntarioak
- Senide eta Irakasleen Prestakuntza Dialogikoa.

1.3.1. Talentuz Proiektua eta Konpetentzien garapena

Haur Hezkuntzako ezaugarri nabarmena da hurrek modu globalean adierazten dituztela gauzak, izaten dituztela harremanak eta hausnartzen dutela ingurua. Adin txikiko haurrek erritmo, interes eta behar desberdinak dituztenez, kontuan hartu behar dira bai ikasgelako espazioaren eta denboraren antolakuntza planifikatzeko bai eta eskolako jardueraren plangintza egiteko ere.

Hori guztia kontuan izanik, Talentuz Proiektuak ikasleen konpetentzia eta talentuak zehazteko hiru iturri nagusi erabili ditu. Europar Batasunak eta “Delors txostenak” aurkeztutakoak, Howard Gardner-ek egindako “Adimen Anitzen” proposamena eta Hezkuntza Sailak dekretuz ezarritako Haur Hezkuntzako Oinarrizko Konpetentziak eta Curriculum eremuak. Aipatutako txostenetan oinarrituz, hauek dira Talentuz Proiektuak bultzatzen dituen konpetentzia edo talentuak: Konpetentzia pertsonala eta soziala, konpetentzia komunikatiboa, konpetentzia matematikoa eta zientifikoa, konpetentzia artistikoa, konpetentzia korporala, konpetentzia ekologikoa eta konpetentzia digitala.

“Delors” Txostena eta Europar Batasuna	Adimen Anitzak: H. Gardner
<ul style="list-style-type: none"> - Arduraz bizitzen ikasi - Ikasten eta pentsatzen ikasi - Komunikatzen ikasi - Elkarrekin bizitzen ikasi - Pertsona gisa garatzen ikasi - Egiten eta ekiten ikasi 	<ul style="list-style-type: none"> - Adimen linguistikoa - Adimen espaziala - Adimen Musikala - Adimen Korporala - Adimen Pertsonala - Adimen Soziala - Adimen Naturalista - Adimen Matematiko-logikoa
HEZIBERRI 2020	TALENTUZ IKASGUNEAK
<p>Zeharkako Konpetentziak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean 	<p>IKASGUNE Pertsonala eta Soziala IKASGUNE Komunikatiboa</p>

<p>komunikatzeko konpetentzia.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia. - Elkarbizitzarako konpetentzia. - Izaten ikasteko konpetentzia. <p>Disziplina arteko konpetentziak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia. - Matematikarako konpetentzia. - Zientziarako konpetentzia - Teknologiarako konpetentzia - Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia. - Arterako konpetentzia. - Konpetentzia motorra. 	<p>IKASGUNE Matematikoa IKASGUNE Sormen/Artistikoa IKASGUNE Korporala IKASGUNE Naturalista/Ekologikoa IKASGUNE Digitala</p>
---	--

1.Taula. Ikasleen konpetentzia eta talentuak zehazteko iturri nagusiak.

1.3.2. Ikasketa Guneak Talentuz Proiektuan

Talentuz guneak ikasleen konpetentzia eta talentuak berariazkoak diren material eta baliabideekin osaturiko ikasgune espezializatuk dira. Guneok ikasle bakoitzaren “talentuak” eta jakintzak modurik gorenean sortzeko, azalarazteko eta bultzatzeko prestaturik daude, afektuak, sormena, komunikazioa, abstrakzioa eta sozializazioa garatuz. Talentuz ikas-guneetan, jakintzak eta trebeziak maila sekuentziatuan lantzen dira, ikasle bakoitzaren premiak eta erritmoak kontuan hartuz. Guneotan ikaslea da nagusi eta esku hartze guztiak ikaslearen ongizatea, autonomia eta nortasuna bultzatzeko antolatzen dira. Europar Batasunak proposatutako konpetentzietan oinarrituz “7 Talentuz Ikasgune” bereizten dira:

- Ikasgune: Pertsonala eta soziala

Konpetentzia pertsonala eta sozialaren garapenaren bidez, bizikidetzarako eta gizarte-harremanetarako funtsezkoak diren oinarriak landuko dira. Gune honen xede nagusia bizi-kalitate hobea izaten lagunduko duten ohiturak eta balioak sustatzea da. Nork bere burua zaintzen ikasteak, elikadurari, segurtasunari eta higieneari buruzko jarraibide egokiak hartzea eskatzen du. Eskola-bizitzak pertsonen arteko harremanak ezagutzeko aukera emango die, euren artean loturak sortuz zenbait jarrera garatuko dituzte, hala nola konfiantza, enpatia eta atxikimenduzkoak.

- Ikasgune: Komunikatiboa

Jaiotzatik hizkuntzak barneko munduaren eta kanpokoaren arteko lotura dira. Tresna guztiz egokia da errealitatea adierazteko, norberaren jokabidea arautzeko, harremanetarako, eta pentsamenduak, sentimenduak, bizipenak eta abar adierazteko. Haur Eskolak komunikazio-eremua izan behar du, elkarrizketarako aukera asko eskainiz eta irakurketa eta idazketa modu funtzionalean eta esanguratsuan erabiliz.

- Ikasgune: Matematikoa eta zientifikoa

Pentsamendu logikoa eta pentsamendu matematikoa ezinbestekoak dira ingurune fisikoa eratzen duten elementuak aztertu, behatu, ikuskatu, ikertu eta identifikatzeko. Baita ikasleen ekintzek inguruneke elementuetan dituzten eraginak ordenatu, sailkatu eta kuantifikatzeko ere.

- Ikasgune: Artistikoa

Ahozko eta idatzizko hizkuntzaz gain, adierazpen artistiko eta musikalaren bidez haurrek errealitatea aztertu eta trebetasun eta gaitasun berriak eskuratzen dituzte. Musika hizkuntzak pertzepzioari, erritmoari, kantuari, soinudun objektuak eta instrumentuak erabiltzeari, gorputz mugimenduari eta sorkuntzari loturiko gaitasunak garatzeko aukera ematen du. Horrez gain, inguruko zein urrutitik datozen tradizioak eta adierazpen moduak ere ezagutuko dituzte.

- Ikasgune: Korporala

Haur Eskolan gorputzaren eta keinuen bidezko komunikazioa hizkuntza guztien oinarria da, haurrak euskarri horretatik eta helduekin dituzten harremani esker ahozko hizkuntza garatzera helduko dira. Umeek pertsona nagusien edota irakasleen laguntzaz gorputzaren garapen eta mugimendua handituko dituzte, bere aukerak eta mugak egiaztatuz eta helduekiko independentzia-prozesua landuz.

- Ikasgune: Ekologikoa

Ingurumenarekin harremanetan aritzeak aukera ematen die haurrei ingurune hurbilean integratzeko, arazoak konpontzeko eta bizileku duten mundua ezagutzeko. Talentu ekologikoak bat egiten du egungo gizarteak dituen erronka eta konpromiso nagusiekin, hots, jasangarritasun, biodibertsitate eta naturaren defentsarekin. Haurtzarotik landu

behar dira kontsumo zuzenarekin eta berrerabilpenarekin lotutako jarrera eta portaerak, ondorengo urteetan sendotu daitezzen.

- Ikasgune: Digitala

Informazio gizartea aurrera doan neurrian gero eta azkarrago erabiltzen dute ikasleek gizarte berri honek dituen baliabide digitalak. Teknologiako tresnak (ordenagailua, kamerak, soinu eta irudiak, internet...) behar bezala eta modu esanguratsuan erabiltzen hastea, eta tresna horiek komunikatzeko duten gaitasuna aintzat hartzea ezinbestekoa da Haur Hezkuntzan.

1.3.3. Hezkuntza esku hartzea Talentuz ikasguneetan

Ikasleen arteko elkarrekintzak funtsezkoak dira ezagutzak sortu eta ikasketak modu egokian garatzeko. Horretarako, bakarkako lana landuko bada ere, talde lana lehenetsiko da, beti ere talde lanean elkar ulertzeko, harreman egokiak finkatzeko eta ikasketak garatzeko ahozko hizkuntza erabiltzen denean.

- **Jolastuz ikasi**

Adin horretako haurren garapenaren dimentsio guztiak jolasarekin loturik daude. Jolasaren bitartez, ulertzeko moduak antolatu, gaitasunak probatu, esperientzia berregin eta bere emozioak menderatzen saiatzen dira. Beraz, jolasa ikasteko tresna pribilegiatua denez, jarduera nagusia izan behar da, eta hainbat egoera, bizipen, ezagutza eta gaitasun bateratzeko erabiliko da. Jolas mota guztiak (heuristikoa, soziala, sinbolikoa, psikomotorra...) ikaslearen gaitasunen garapen integrala bultzatzeko erabiliko dira talentuz guneetan, horregatik, berebiziko garrantzia hartzen du haurren esperientziak eta elkarrekintzak bideratuko dituzten testuinguruak aberatsak izateak.

- **Jarduera libreak**

Talentuz guneetan ikasleek aukera izango dute jarduera libreetan ibiltzeko. Jarduera librean antolaketa (ordutegia eta espazioen erabilera) irakasleek antolatuko dute eta beti ere jarduera antolatuekin batera partekatuko dira.

- **Jarduera antolatuak**

Jarduera antolatuak, irakasle edo beste pertsona nagusi batzuen gidaripean egiten diren ekintzak dira. Ekintza hauek modu desberdinetan antola daitezke.

- *Irakasle bakar baten gidaripean*

- *Irakasle edo pertsona nagusi gehiagorekin antolaturiko jarduerak.*

1.3.4. Aniztasunaren trataera Talentuz guneetan

Aniztasunaren trataerak ikasle guztien garapena bultzatu nahi duenez, arreta pertsonalizatua izango du oinarri. Horretarako haurraren garatze prozesuaren, interesen, erritmoen eta ikasteko estiloaren ezaugarriak kontuan izango ditu.

Horregatik, Talentuz guneetan aniztasunari eta inklusioari erantzun egokia emateko beharrezkotzat jotzen diren mekanismo egokiak ipiniko dira martxan: laguntzak talde arruntan ematea, elkarrekintzako taldeak antolatzea, guraso eta senideen parte hartzea handitzea, irakasleen arteko neurri koordinatuak finkatzea... Horrela, ikasleek bidezko garapena, orokorra eta harmonikoa izan dezaten ahalbidetuko duten hezkuntza-esperientziak, esperientzia kulturalak, teknologikoak eta antzekoak eskainiko ditu eskolak, programazio eta proposamen irekien bidez ikasle bakoitzaren behar pertsonaletara egokitzeko aukerak zabalduz.

1.3.5. Baliabide materialak Talentuz guneetan

Talentuz guneetako helburu argia da ikasleen pentsamendua, sormena eta afektuak modu gorenean garatzea. Eta horretarako gune espezializatuetan banatu izan dira espazioak. Berriazko gune bakoitza azpi-gune edo jarduera-txoko desberdinekin osaturik dago, eta txoko guztien loturak osotasuna irudikatzen duen sarea borobiltzen du. Txoko bakoitzean aurki ditzakegun baliabide materialak espazio horretan burutuko diren jarduerak eta garatu nahi diren gaitasun eta konpetentziak lantzeko bereziki prestatuak daude. Beraz, materialak funtsezkoak bihurtuko dira ikasleen arteko elkarrekintzak bultzatzeko eta, hizkuntza zein manipulazio zuzena erabiliz, ume bakoitzaren pentsamendua, sormena eta afektuak garatzeko.

1.3.6. Familiarekin elkarlanean Talentuz guneetan

Familiari dagokio, sozializatzeko eragile nagusia den aldetik, umea lehen-lehenik hezteko erantzukizuna. Familiaren eraginaren bitartez, haurren nortasuna egituratu

behar duten oinarrizko balioak, gaitasun intelektualak eta afektiboak garatzen dira, eta horiekin batera helduen kultura transmititzeko lehen testuingurua bihurtzen da. Gaur egungo zenbait ikerketek azaleratu duten moduan, senide eta irakasleen arteko elkarlanak onuragarriak dira umeen pentsamendua eta afektuak garatzeko eta Haur Eskolako elkarbizitza hobetzeko, horregatik, proiektu honetan senideen eta irakasleen arteko elkarlana bultzatzeko eta sustatzeko ahalegina egiten da.

1.3.7. Irakasleen arteko talde lana Talentuz guneetan

Talentuz guneetan, zenbait momentu eta ohikoa izango da adin bereko haur guztiak eta irakasle bat baino gehiago edota irakasle eta hezitzaileak, profesionalak, senideak edo boluntarioak elkarrekin lanean egotea. Beraz, ezinbestekoa izango da pertsona horien guztien arteko koordinazio lanak ondo antolatuta eta zehaztuta egotea haurren hezkuntza-prozesua modu pertsonalizatuan garatzeko. Talentuz guneetan pertsona desberdinak elkarlanean jardun arren, tutore bakoitza bere ikasle taldearen arduradun izango da eta berari dagokio ikasle talde horren heziketa prozesuan erabakiak hartzea, beti ere beste pertsonekin iritziak konpartituz eta adostuz.

2. HELBURUAK

Ikerkuntza lan honekin lortu nahi izan den helburu nagusia Lekeitioko Eskola Publikoan martxan jarri berria den Haur Hezkuntzako Talentuz Proiektuaren egokitasuna defendatzea izan da, horretarako, beste hiru helburu nagusi izan dira oinarritzat:

1. Ikas Komunitateen eta Talentuz Proiektuaren oinarri teorikoetan sakontzea.
2. Talentuz ikas guneak behatu eta aztertzea.
3. Talentuz ikas gune eta kompetentzien garapenaren arteko loturak ikertzea.

Aipatutako azpi-helburu hauek oinarritzat izanik beraz, lan hau egiteko pausuak eman ahal izan dira, ikerketa eta behaketa bitarteko datu bilketan jasotako informazioarekin alderatuz eta teoria praktika errealarekin uztartuz. Gainera, Kompetentzien Garapena Talentuz Proiektuan aztertzeko xedea ere izan du ikerkuntza lan honek. Delors Txostenean, Howard Gardnerren Adimen Anitzen teorian eta Heziberri 2020 txostenean oinarritzen diren kompetentzietan hain zuzen ere:

- Kompetentzia pertsonala eta soziala.
- Kompetentzia komunikatiboa.

- Konpetentzia matematikoa eta zientifikoa.
- Konpetentzia artistikoa.
- Konpetentzia korporala.
- Konpetentzia ekologikoa.
- Konpetentzia digitala.

Hori horrela, ikerketa lan honek aurretiaz prestatutako hainbat helburu lortzeko xedea izan du, tresna ezberdinen bitartez Talentuz Proiektuaren egokitasuna defendatzeko asmoz.

3. METODOLOGIA

Aurkezten den lan hau Lekeitioko Eskola Publikoan martxan jarri berria den Talentuz Proiektuari buruzko ikerketa lana da.

Hau lortzeko, oinarri metodologiko mistoa erabili dela esan beharra dago. Alde batetik, metodologia kualitatiboa erabili da, datu bilketarako analisiak, elkarrizketak eta behaketak eginez. Bestetik aldiz, metodologia kuantitatiboa ere erabili da, guraso eta irakasleei egindako galdetegien bitartez jasotako emaitzak eta hurren ebaluazio orrien azterketetan jasotako datu zehatzak ere bildu direlako.

Hasierako datu bilketarako, bibliografian ageri diren Ikas Komunitateei, Adimen Anitzei eta zenbait Proiektu Berritzaileri buruzko liburu, aldizkari eta artikuluak irakurri dira. Horrela, autore ezberdinen ekarpenetan oinarrituz, proiektuaren oinarria osatzen duten teoria eta ideia ezberdinetan sakondu ahal izan da.

Teorietatik urrundu eta praktika eta behaketa errealerara hurbiltzeko asmoz, proiektuan parte hartzen duten irakasleekin izandako elkarrizketen bidez jasotako informazioa ere erabili da. Elkarrizketa hauek, eguneko edozein momentutan eta egoeratan egin diren hartu-eman informalak izan dira, hiruhilabete bateko praktikaldi osoan zehar egin direnak. Gainera, behaketa zuzenaren bitartez jasotakoarekin osatu eta uztartu ahal izan da, teoria eta praktika lotuz.

Ikerketa honekin jarraitzeko beraz, teorian eta praktikan jasotako emaitzez gain, emaitza errealak eta datu enpirikoak jasotzeko beharra sentitu da. Hori horrela izanik, ikasturte bitan hurren ebaluazioetan jasotako emaitzak ateratzea eta irakasle eta gurasoentzako galdetegi bat prestatzea erabaki da. Ebaluazioak aztertzeko, Lekeitioko Eskola

Publikoko zuzendaritza taldeari baimena eskatu eta txostenak batu dira (Ikusi ebaluazio orria 3. Eranskinean). Hauek ofizialak izanik, kopiak atera eta horiekin multzo bi egin dira, proiektuaren lehenengo ikasturteko ebaluazio txostenak alde batetik eta bigarren ikasturteko ebaluazio txostenak bestetik. Multzo bakoitzean ume bakoitzaren emaitzak jaso dira (Ikusi 4. Eranskina), gero, gelako ume guztien emaitzekin batuz-bestekoa egin ahal izateko. Behin hau eginda, ikasturte bakoitzean emandako emaitzak eremuka (Ikusi 5. Eranskina) zein atalka (Ikusi 6. Eranskina) adierazi eta alderatu dira.

Arestian aipatu den moduan, galdetegiak ere erabili dira beharrezko informazioa lortzeko (Ikusi 2. Eranskinean). Alde batetik, Talentuz Proiektuan Konpetentzien garapena ematen den galdetu zaie proiektuko irakasleei eta bestetik, proiektuan parte hartzen duten umeen gurasoei. Era honetan, batzuen (Ikusi 7. Eranskina) eta besteen (Ikusi 8. Eranskina) ustea eta behaketa zuzenak emandako hausnarketak kontuan izanik, errealitatean proiektua nolakoa den eta zer nolako emaitzak dituen frogatu ahal izan da.

Behin ikerketa hau egiteko azaldutako pausu guztiak emanda, atal bakoitzean ateratako emaitzak sakontasunez aztertu eta hauen guztien arteko balorazioa egin da, proiektuaren azken emaitza ateraz.

4. AUKERATUTAKO LAGINA

Talentuz Proiektuari buruzko ikerketa lan hau burutzeko aukeratutako lagina, Lekeitioko Eskola Publikoa izan da. Eskola hau, izenak berak esaten duen bezala Bizkaiko kostaldean kokatuta dagoen herri txiki batean dago, Lekeition hain zuzen ere. Herri hau euskalduna da eta gaur egun 7.500 biztanle inguru ditu (Lekeitioko Udala, 2016). Ikastetxe hau 60ko hamarkadan sortu zen. Hartatik, D ereduko ikastetxe publikoa da eta gaur egun; Haurtzaindegi zerbitzua, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eskaintzen ditu. Ikastetxe honetako ardatz metodologiko nagusia Ikas Komunitatea da, “Ikaskuntza Dialogikoa” izanik honen oinarri metodologikoa.

Hezkuntzan martxan jarri berria den Talentuz Proiektua dela eta, adin bereko haurren gelak bakar batean batu dira, guztira 160 metro karratu inguruko espazioa sortuz. Gela, txoko edo gune ezberdinetan bereizita dago eta haurrek haien interesen arabera zirkulazio librea izaten dute (Talentuz Proiektua, 2014).

Ikerketa egiteko behatutako eta aztertutako gela, eskola honetako 4 urteko gela izan da. Gela honetan Haur Hezkuntzako 4 urteko haur guztiak batera daude, guztira 41 neska-mutilek osatzen dutelarik (19 mutil eta 22 neska). Honen gidaritza, tutore birek daramate eta ikasgelaren erdian dagoen ate mugikor bat zabalduz eta itxiz gela bitan banatzen dute lasaitasun gehiago behar diren jarduerak burutzeko.


5. IKERKETARAKO ERABILITAKO TRESNAK

Ikerketa lan hau burutzeko hainbat tresna erabili dira. Horien artean galdetegiak eta ebaluazio orriak aurki ditzakegu, eta baita bakoitzari dagozkion emaitzen orriak ere. Hauek martxan jartzeko eta ahalik eta emaitzik errealean aurkitzeko, irakasle eta gurasoen iritzi eta behaketak jasotzeaz gain, ikasturte ezberdinetako umeen ebaluazio orriak aztertu dira, datu enpiriko gisa aurrekoarekin osatu ahal izateko.


➤ Galdetegiak

Galdetegiak irakasle eta gurasoei zuzendutako inkestak izan dira, hauek, Talentuz Proiektuan garatzen diren konpetentzien inguruko zazpi galdera zehatzez eta galdera ireki batez osatuta egon direlarik. Galdera zehatzak 1etik 5erako puntuaketa bitartez erantzuteko eskatu dira, eta galdera irekia modu askean erantzuteko aukera egon da.

Galdetegia egiteko, Google Drive¹ erabili da. Tresna honek hainbat aukera eskaintzen ditu, horien artean galdetegiak egiteko aukera. Honen bitartez, informazio eraginkorra modu erraz eta erosoan lortu daiteke, posta elektronikoko bitartez. Gainera, erantzunen kalkulu orriak zuzenean betetzeko aukera ere eskaintzen du, datuak zehaztasun handiagoz maneiatzeko aukera eskainiz. (Nahi izanez gero ikusi galdetegia 2. Eranskinean).



1. Irudia. Google Drive, galdetegia.



2. Irudia. Google Drive, erantzunak.

¹ Google Drive es el servicio de almacenamiento de datos en una nube de la red. El servicio incluye 15 GB gratuitos en una plataforma en la que puedes crear carpetas y guardar todo tipo de archivos.

➤ **Ebaluazio orriak**


Ebaluazio orrietatik datuak ateratzeko 2014/2015 ikasturteko azken hiruhilabeteko emaitzen eta 2015/2016 ikasturteko lehenengo hiruhilabeteko emaitzen datuen bilketa egin da, kontuan izanik Talentuz Proiektua 2014 urtean jarri zela abian. Beraz ikasturte bitako emaitzak baino ezin izan dira erabili.

Hala ere, ume berdinen lehen urteko emaitzen eta bigarren urteko emaitzen arteko alderatzea egiteko nahikoa izan da, hauen garapena nolakoa izan den aztertuz, eta proiektuak nolako garapena izan duen sakontasunez behatuz.

Ebaluazio orri hauek, Lekeitioko Eskola Publikoan oinarritzko garapenerako eskatzen diren alorrak *Ondo* edo *Bidean* dauden zehaztuz betetzen dira, aurretiaz ikasturterako jarritako helburuak lortu dituzten edo lortzeko bidean dauden azaltzeko. (Ebaluazio orria ikusi nahi izanez gero, joan 3. Eranskinera).


6. ATERATAKO EMAITZAK

Ikerketa lan honekin bildutako informazioa eta datuak aztertu ondoren, ateratako emaitzak hurrengo eran antolatzea erabaki da hartzaileari ikerketa lan honen ulermena errazteko asmoz. Aztertutako bi atalak beraz, haurren ebaluazioen bidez bildutako datuak eta Talentuz Proiektuan parte hartu duten irakasleei eta gurasoei eginiko galdetegien emaitzak izan dira.




3. Irudia. Aztertutako atalen emaitzen eskema.

2014/2015 Ikasturteko Ebaluazioak



Goiko irudietan 2014-2015 ikasturtean umeen ebaluazioetatik jasotako datuen batzuek ikusi daitezke. Hauek hiru eremu nagusitan banatu dira modu orokorrean umeen konpetentziak garatu diren aztertzeko. Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonalari dagokionez, ikasleen %92ak ezarritako helburuak lortu dituela ikusi daiteke, Inguruaren ezaguerari dagokionez %96ak lortu ditu, eta Hizkuntzak, komunikazioa eta adierazpenari dagokionez %90ak. (Emaitzak eremu bakoitzean atalez atal ikusi nahi izanez gero, joan 6. Eranskinera).


2015/2016 Ikasturteko Ebaluazioak



Goiko irudietan 2015-2016 ikasturtean umeen ebaluazioetatik jasotako datuen batzuek ikusi daitezke. Hauek hiru eremu nagusitan banatu dira modu orokorrean umeen konpetentziak garatu diren aztertzeko. Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonalari dagokionez, ikasleen %93ak ezarritako helburuak lortu dituela ikusi daiteke, Inguruaren ezaguerari dagokionez %91ak lortu ditu, eta Hizkuntzak, komunikazioa eta adierazpenari dagokionez %85ak. (Emaitzak eremu bakoitzean atalez atal ikusi nahi izanez gero, joan 6. Eranskinera).

Irakasleei egindako galdetegiaren emaitzak


Irakasleei zuzendutako galdetegiak Talentuz Proiektuak barne hartzen dituen Konpetentzien inguruko galderak luzatzen ditu. Ikerketa lan hau aurrera eramateko horietan jasotako datuak bildu eta konpetentzia bakoitzean lortutako emaitzen batza bestekoak atera dira, bakoitzean 1etik 5era bitarteko puntuaketa kontuan izan delarik: Bat ere ez, oso gutxi, erdizka, ia guztiz edo guztiz erantzunez.



Irakasleei egindako galdetegiaren bitartez jasotako emaitzak aztertuz, Talentu Pertsonala eta Soziala, Talentu Komunikatiboa, Talentu Matematikoa eta Zientifikoa eta Talentu Naturalista Ekologikoa ia guztiz garatu direla ikusi dezakegu. Aldiz, Talentu Artistikoa, Korporala edo Digitalari dagokionez, erdizka edo gutxi garatu diren alderdiak ere azpimarratu daitezke. (Talentuz Proiektuan parte hartu duten irakasleen erantzunak modu zehatzagoan ikusi nahi izanez gero, joan 7. Eranskinera).

Gurasoei egindako galdetegiaren emaitzak

Gurasoei zuzendutako galdetegiak Talentuz Proiektuak barne hartzen dituen Konpetentzien inguruko galderak luzatzen ditu. Ikerketa lan hau aurrera eramateko horietan jasotako datuak bildu eta konpetentzia bakoitzean lortutako emaitzen batza bestekoak atera dira bakoitzean 1etik 5era bitarteko puntuaketa kontuan izan delarik: Bat ere ez, oso gutxi, erdizka, ia guztiz edo guztiz erantzunez.



Gurasoei egindako galdetegiaren bitartez jasotako emaitzak aztertuz, Talentu Pertsonala eta Soziala, Talentu Komunikatiboa eta Talentu Matematikoa eta Zientifikoa guztiz edo ia guztiz garatu direla ikusi dezakegu. Aldiz, Talentu Artistikoa, Talentu Korporala, Talentu Naturalista Ekologikoa edo Talentu Digitalari dagokionez, erdizka garatu diren alderdiak ere azpimarratu daitezke. (Talentuz Proiektuan parte hartu duten gurasoen erantzunak modu zehatzagoan ikusi nahi izanez gero, joan 8. Eranskinera).

7. ONDORIOAK

Orain, aurreko atalean aurkeztutako emaitzen azterketa sakona eta honetatik ateratako ondorioak azalduko dira.

Ebaluazioak aztertzean ateratako ondorioak

Hasteko, 2014/2015 ikasturteko ebaluazioak aztertuko dira. Honetan, arestian azalduetako hiru eremuak izan dira kontuan, Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala, Inguruaren ezaguera eta Hizkuntzak, komunikazioa eta adierazpena. Ikusi dezakegunez, azalduetako hiru eremuetan haur guztien %92,6ak lortu du ikasturterako ezarritako helburuak betetzea.

Ikerketarekin jarraituz, 2015/2016 ikasturtean egindako ebaluazioak aztertu dira. Hemen, umeen %92ak izan du arrakasta Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala eta Inguruaren ezaguerari dagozkion eremuetan. Aldiz, Hizkuntzak, komunikazioa eta adierazpenari dagokionez arrakasta umeen %85ak lortu duela ikusi dezakegu, emaitza hau atzerriko hizkuntzari dagozkion datuak direla eta eman da, izan ere, umeez hizkuntza berriarekin duten lehen kontaktua da eta beraz, hasierako gaitasunak eta konpetentziak garatzean gehienak hauek lortzeko bidean daudela azpimarratzen da. Beraz, ikasturte honetan hiru eremuetan guztira izandako arrakasta %89,6koa izan da.

Ikasturtea	Emaitza (%)
2014/2015	%92,6
2015/2016	%89,6
Ikasturte bietako emaitza: %91,1	

2. Taula. Ikasturte bakoitzeko ebaluazioen emaitzen interpretazioa.

Talentuz Proiektuak ikasturte bitan izan dituen emaitzen datuak jaso eta aztertu ondoren beraz, emaitza arrakastatsuak izan dituela esan daiteke. Izan ere, ikasturte biak kontuan izanda umeen %90ak baino gehiagok ezarritako gaitasun eta konpetentziak modu arrakastatsuan garatu ditu, eta beste gutxi batzuk horiek lortzeko bidean daude.

Galdetegiak aztertzean ateratako ondorioak

Ikerketarekin jarraitzeko, irakasle eta gurasoei egindako galdetegiaren bidez jasotako emaitzen datuen azterketa egin da. Horietan, emaitzak anitzak izan dira, eta beraz bataz bestekoen bidez orokortu da horietan jasotakoa guztiz eta ia guztiz garatu diren alorrak kontuan izanik.

Irakasleak	Gurasoak
%85,7	%77,5
Irakasle eta gurasoen emaitza: %81,6	

3. Taula. Irakasle eta gurasoen galdetegiaren emaitzen interpretazioa.

Irakasleei egindako galdetegiari dagokionez, emaitzak bateratuagoak izan direla esan beharra dago. Orokorrean, umeek talentu edo kompetentzia guztiak ia guztiz edo guztiz garatu dituztela azpimarratu dute, eta alor gutxi batzuk erdizka garatu direla diote. Horrez gain, Talentu Digitala oso gutxi garatzen dela ere aipatzen da, emaitza hau hiru urteko gelan kompetentzia hau askorik garatzen ez delako da, txoko honen erabilera lau urtetik aurrera lantzeko prestatuta dagoelako, eta galdetegia erantzun duten irakasleak Haur Hezkuntza 3 eta 4 urteko geletako tutoreak izan direlako.

Gurasoei egindako galdetegiari dagokionez aldiz, emaitzak desberdinagoak izan direla esan beharra dago. Hemen, umeen ehuneko gehienak talentu edo kompetentziak ia guztiz garatu dituela azpimarratzen bada ere, beste zenbait erdizka garatzen dituztela ere esaten da.

Baina gurasoen eta irakasleen galdetegiaren emaitzek orokorrean izan dituzten portzentajeak eta hauen batz bestekoak hartzen baldin badira kontuan, kompetentzien garapena Talentuz Proiektuan nahiko ona dela esan daiteke, izan ere, umeen %81,6ak kompetentzia horiek guztiz edo ia guztiz lortu ditu, gutxi batzuek erdizka lortu dituztelarik.

Ebaluazioak guztira (%)	Galdetegiak guztira (%)
%91,1	%81,6
Ikerketaren emaitza orokorra: %86,3	

4. Taula. Ikerketaren emaitza orokorraren interpretazioa.

Orokorrean, aztertutako atal bietan jasotako emaitzak eta norberak egindako behaketaren eta esperientziaren bidez jasotako datuak kontuan izanda, Talentuz Proiektuaren arrakasta azpimarratu beharra dago. Izan ere, proiektu berria dela kontuan izanik ezarritako helburuak bete dituela eta umeen gaitasunak eta kompetentziak modu egokian garatzen laguntzen duela ikusi da, umeen %86,3aren kompetentzien garapena modu egoki eta arrakastatsuan ematen baita, %13,7a horiek lortzeko bidean dagoelarik.

Hala ere, irakasleek eta gurasoek proiektuari buruz dituzten iritziak kontuan hartzen baldin baditugu, eta hauek egindako ekarpenetan arreta jartzen badugu (7. Eta 8. Eranskinak) proiektuak hobetu ditzakeen alorrak ere badituela ikusi daiteke, umeek

aipaturako konpetentziak modu orekatuago batean gara ditzaten, ume guztiek gaitasunak modu berdintsuan gara ditzaten edota irakasleari dagozkion zirkulazio librearen kontrolaren zailtasunak gainditu daitezten.

Aipatu den moduan, proiektu honek alderdi ahulagoak ere baditu, eta beraz, etorkizunean alor horiei aurre eginez hobekuntzak eta aldaketak egiteari ezin zaio uko egin. Haatik, ikerketa lan hau egiterakoan aztertutako atal guztiak, jasotako datu empirikoak, elkarrizketak, behaketak eta abarrak kontuan izanda, proiektuak dituen alor indartsuak eta balio positiboak ere azpimarratu behar direla uste dut, lan honekin defendatu nahi izan den Talentuz Proiektuaren praktika errealearen arrakasta erakutsi dutelako.

8. IKERKUNTZARAKO ZAILTASUNAK

Ikerkuntzarako zailtasunei dagokienez, esan beharra daukat lana nahiko erraz bideratzeko aukera izan dudan arren, ikerketa zaildu duen oztoporen bat ere izan dudala.

Hasteko, ikerketa lan bat burutu dudan lehen aldia izan dela esan beharra daukat. Inoiz galdetegiak eta mota honetako azterketak egin ez izanak ezjakintasuna sortu izan dit hasiera batean, baina gutxika lanean aurrera egin ahala eta tutorearen aholkuen laguntzaz ikerketak egiteko modu eta tresna ezberdinen inguruan maneiatzeko gai izan naiz. Jarraitzeko, esan beharra daukat Talentuz Proiektua martxan jarri berria den proiektua izanik, ibilbide laburreko esperientzia duela praktika errealean, eta beraz, emaitzak ikusteko zailtasun gehiago izan ditudala. Izan ere, 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetako ebaluazio emaitzak baino ezin izan ditut jaso. Gainera, modu gradualean ezartzen ari den proiektua da, urtean ikasgela berri batean ezarriz, eta beraz, ikasgela bitako praktiketara jasotako esperientzia baino ezin izan da aztertu.

Horrez gain, gurasoek proiektuari buruz duten ezjakintasuna handia dela ere azpimarratu beharra daukat. Nahiz eta eskolak ikasturte hasieran proiektuaren inguruko formakuntza saioak eman, gurasoen ehuneko handienak ez du parte hartzen izan, eta beraz, formakuntza saio hauek bertan behera utzi behar izan dira. Hori horrela, galdetegia luzatzean gurasoetako gehienek ez dituzte proiektuaren nondik-norakoak ezagutzen izan, eta beraientzako ere ez da erraza izan honi erantzutea.

Hala ere, ikerketa lan hau burutzerakoan izandako oztopo eta zailtasunak alde batera uzteko gaitasuna izan dudala esan beharra daukat, ikerketan aurrera egin den heinean arazo txiki hauek gainditzen joan naizelako. Beraz, zailtasunak zailtasun eta oztopoak oztopo, hasiera batean lortu nahi izan diren helburu eta xedeak lortu ahal izan dira, proiektuaren egokitasuna defendatuz.

9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

1. Delors, J. (1996). La educación encierra un tesoro: Los cuatro pilares de la educación. UNESCOri txostena, XXI menderako hezkuntzari buruzko nazioarteko batzordetik. (91-103). Madrid: Santillana/UNESCO.
2. Elboj, C., Puigdelívol, I., Soler, M., eta Valls, R. (2003). Comunidades de Aprendizaje: Transformar la educación. (55-72) (91-107). Graó.
3. Escamilla, A. (2014). Inteligencias Múltiples. Claves y propuestas para su desarrollo en el aula. (53-93). Graó.
4. Eusko Jaurlaritza. (2014). Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila. Heziberri 2020: Hezkuntza eredu pedagogikoaren markoa.
5. Flecha, R., Padrós, M., eta Puigdelívol, I. (2003). Comunidades de Aprendizaje: transformar la organización escolar al servicio de la comunidad. Organización y gestión educativa, nº 5 septiembre-octubre 2003, pp.4-8- Bilbao: Fórum Europeo de Administradores de la Educación y CISSPRAXIS, S.A.
6. Gardner, H. (2002). La mente no escolarizada. Cómo piensan los niños y cómo deberían enseñar las escuelas. (94-120). Paidós Ibérica.
7. Gardner, H. (2010). La inteligencia reformulada. Las inteligencias múltiples en el siglo XXI. (40-56) (144-160). Paidós Ibérica.
8. Hik Hasi. (2003). Euskal Heziketarako Aldizkaria: Antzuolako herri ikastetxearen proiektua. 10. Monografikoa. Donostia: Xangorin.
9. Hik Hasi. (2015). Euskal Heziketarako Aldizkaria: Konfiantzaren pedagogia. 203. Zenbakia. (10-17). Donostia: Xangorin.
10. Hoyuelos, A. eta Cabanellas I. (2005). Hik hasi, pedagogo sortzaileak teorien iturburu. 17. monografikoa. (109-113). Donostia: Xangorin.
11. Iturbe, X. (2014). Talentuz Proiektua. Ikas Komunitatea Haur Hezkuntzan. Lekeitio: Lekeitioko Eskola Publikoa.

12. Jaussi, M. eta Garre, C. (2002). Euskadiko Ikaskuntza Komunitateak. (105-122). Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Rústica.
13. Lekeitioko Eskola Publikoa. (2015). Buletina. (110. Alea).
14. Lekeitioko Eskola Publikoa. (2015). Eskola gida. Gizaburuaga: Kiñuka.
15. Lekeitioko Udala. (2016) Informazio orokorra. 2016ko maiatzaren 12an berreskuratua, hemendik: <http://www.lekeitio.com/eu-ES/Udala/Informazio-orokorra/Orrialdeak>